

2005EKO ABENDUAREN 14KO **TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bosteko abenduaren hamalauan, iluntzeko zazpietan, Lazkaoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Inazio Estensoro Eskisabel, Xanet Barreras Jauregi, Inazio Barandiaran Aldasoro, Kepa Goenaga Alikostes eta Arantxa Zumelaga Agirre.

Igor Sarriegi Zumarraga zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Izaro Gurrutxaga Auzmendi udaleko idazkari akzidentalak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2005eko azaroaren 16an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2005eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 10 zbk.dun fakturen zerrenda, ~~EHUN~~ ETA BI MILA EHUN ETA HOGEITA HEMEZORTZI euro eta HOGEITA HAMAIIKA zentimo (102.138,31 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 564 zbk.dun esped.: etxeko laguntza zerbitzua gehitzea, astean 5 egun eta eguneko 1,5 orduetatik astean 5 egun eta eguneko 2 orduetara. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %15a izango da.

- 657 zbk.dun esped.: astean 6 egun eta eguneko ordu beteko etxeko laguntza zerbitzua ematea. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %15ekoa izango da.

- 681 zbk.dun esped.: astean 2 orduko etxeko laguntza zerbitzua ematea. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %3a izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 573 zbk.dun esped.: berogailu bat erosteko 73,90 euro ematea. Ematen zaiona eskutakoaren %100a da.

- 627 zbk.dun esped.: berogailu bat erosteko 73,90 euro ematea. Ematen zaiona eskutakoaren %100a da.

Telealarma.-

- 127 zbk.dun esped.: telealarmaren instalakuntzarako 52,10 euro eta bere mantenimendurako urtean 55,5 euro ematea. Ematen zaiona eskututakoaren %75a da.

Erretiratu eta pentsiodun elkarteari dirulaguntza.-

Orobione erretiratu eta pentsiodun elkarteari, 2005 urteari dagozkion ondorengo dirulaguntzak ematea:

?? Inbertsioetarako	190,00 €
?? Jardueren garapenerako	2.760,45 €

IV.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK.-

Antzar Korrikalariak. Eskolarteko Kros Txapelketa.-

Antzar Korrikalariak elkarteak, abenduaren 11n Lazkaon ospatu zen Eskolarteko Kros Txapelketarako eginiko dirulaguntza eskaera eta udal honetako kirol batzordearen proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, seiehun eta berrogeita hamar (650,-) eurotako dirulaguntza ematea erabakitzen du.

San Benito Ikastola. eskola kirola.-

Lazkoko Udalak eta San Benito Ikastolak 2004ko abenduaren 21ean izenpetutako akordioan 2004-2005 ikasturteko eskola kirola aurrera eraman eta egiturak sendotu eta aurrera eramateko zortzi mila zortziehun eta laurogeitahamar (8.890,-) eurotako dirulaguntza aurrikusten zen.

Ikasturtea amaitu eta dagokion txostenak aurkeztu ondoren udal honek Gipuzkoako Foru Aldunditik jaso beharreko dirulaguntza jaso duelarik, udaleko kirol batzordeak Tokiko Gobernu Batzar honi, San Benito Ikastolari zortzi mila zortziehun eta laurogeta hamar (8.890,-) eurotako dirulaguntza ematea proposatzen du, eskola kirola laguntza kontzeptuan.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, proposamena onartzea erabakitzen du.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.